

IRAGARKIA / EDICTO

**Gizarte Larrialdietarako Laguntzak
minorizatzeko irizpideei buruzko Alkatetzaren
2020/68 Dekretua bertan behera uztea.**

2020/425 alkatetza dekretuaren bidez, honako hau erabaki da:

Ebazpen hau ematen dut martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean. Dekretu horren bidez, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu da (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zuen), herritarren eskubideak babesteko helburuarekin.

Ikusirik 2020/68 Alkate Dekretuz Gizarte Larrialdietarako Laguntzen, 2020 urteari dagokion kudeaketarako, irizpide minorizatzaileak onartu zirela.

Ikusirik 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVIDek eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz Eusko Jaurritzako Gobernu Kontseiluak GLL-tako eskabide-kopurua igoko dela aurreikusten duena eta ondorioz udalei aurrekontu zuzkiduaren igoeraren berri eman zaiena, Urnieta Udala GLLen kudeaketarako 28.535 € gehiago izango ditu, guztira GLLren aurrekontua 133.535 €-tan gelditzen delarik.

Ikusirik gizartekintza arloko zuzendariaren 2020ko apirilaren 02ko txosten proposamena, non COVIDek eragindako osasun krisiarekin batera, eragin duen inpaktu ekonomikoa eta soziala kontutan hartzea ezinbestekoa dela eta egoera zaurgarrienean aurkitzen diren herritarren egoera ekonomikoa kaltetua izan dela dagoeneko, eta izango dela, etorkizun laburrean esaten duena,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- 2020/68 Alkate Dekretua, 2020ko Gizarte Larrialdietarako Laguntzen irizpide minorizatzaileak onartzen dituen, bertan behera uztea.

Dejar sin efecto el Decreto de Alcaldía 2020/68 de criterios de minorización de Ayudas de Emergencia Social.

Por decreto de alcaldía 2020/425 se ha resuelto lo siguiente:

Adopto la presente resolución al amparo de lo dispuesto Disposición Adicional Tercera del RD 463/2020 de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, modificado por el RD 465/2020, de 17 de marzo, con la finalidad de proteger los derechos de la ciudadanía.

Visto que por Decreto de Alcaldía nº 2020/68 se aprobaron criterios de minorización de las Ayudas de Emergencia Social para la gestión correspondiente al año 2020.

Visto el Real Decreto nº 463/2020, de 14 de marzo, por el que se prevé por el Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco un incremento en el número de solicitudes de AES como consecuencia del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID y por el que se informa a los ayuntamientos del incremento de la dotación presupuestaria, el Ayuntamiento de Urnieta dispondrá de 28.535 € adicionales para la gestión de AES, quedando el presupuesto total de AES en 133.535 €.

Vista la propuesta de informe de la responsable de acción social, de fecha 02 de abril de 2020, en la que se menciona que es imprescindible tener en cuenta el impacto económico y social que ha generado la crisis sanitaria ocasionada por el COVID y que la situación económica de la ciudadanía en situación de vulnerabilidad ya se ha visto afectada y se verá afectada en un futuro breve,

RESUELVO:

Primero.- Dejar sin efecto el Decreto de Alcaldía nº 2020/68, por el que se aprueban los criterios de minorización de las Ayudas de Emergencia Social de 2020.



Urnieta
udala

E/2020GORO0011

Bigarrena.- Erabaki hau Udalaren iragarki-taulan eta web-gunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki hauen berri Gizartekintza eta Kontu-Hartzailatza sailei ematea.

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Urnieta, 2020ko apirilaren 21ean. Mikel Pagola Tolosa, alkatea.

Segundo.- Publicar la presente resolución en la página web y en el tablón de anuncios municipal.

Tercero.- Comunicar estos acuerdos a los Departamentos de Acción Social e Intervención.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante el Alcalde, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urnieta, a 21 de abril de 2020. El alcalde, Mikel Pagola Tolosa.